

NAFARROAKO 4X4 SOKATIRA TXAPELKETA 2025

Apirilaren 18tik maiatzaren 30era **Nafarroako goma gaineko 4x4 Sokatira Txapelketa** jokatuko da.

KATEGORIAK ETA PISUAK

Absolutua Gizonezkoak (320 eta 300 kilo)
Absolutua Emakumezkoak (255 eta 240 kilo)
Absolutua Mistoa (280 Kilo)
20 urte azpikoak (280 Kilo)
Kadeteak (280 Kilo)

EGUTEGIA:

EGUNA	ORDUA	LEKUA	PISUAK
Apirilak 18	17:00	Antsoain (Idaki-pilotalekua)	Gizonezkoak 320 – 1J Emakumezkoak 255 – 1J 20 urtez azpikoak 280 – 1J
Apirilak 26	11:30	Doneztebe (Ezkurra pilotalekua)	Gizonezkoak 320 – 2J Emakumezkoak 255 – 2J 20 urtez azpikoak 280 – 2J
Maiatzak 9	17:00	Betelu	Gizonezkoak 300 – 1J Emakumezkoak 240 – 1J
Maiatzak 16	17:00	Elizondo (Baztan pilotalkua)	Gizonezkoak 300 – 2J Emakumezkoak 240 – 2J Kadeteak 280 – 1J
Maiatzak 30	17:00	San Martin De Unx	Mistoak 280 – Jardunaldi bakarra Kadeteak 280 – 2J

PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK:

Gizonezkoak 320 kilo: Berriozar, Beti-Gazte, Txantrea
Gizonezkoak 300 kilo: Antsoain, Berriozar, Beti-Gazte, Txantrea A, Txantrea B
Emakumezkoak 255 kilo: Amaiur, Antsoain, Araxes A, Araxes B, Berriozar A, Berriozar B, Beti-Gazte, Txantrea A, Txantrea B
Emakumezkoak 240 kilo: Amaiur, Antsoain A, Antsoain B, Araxes, Berriozar, Txantrea A, Txantrea B
Mistoa 280 kilo: Antsoain, Araxes, Berriozar A, Berriozar B, Beti-Gazte, Txantrea A, Txantrea B, Txantrea C
20 urte azpikoak 280 kilo: Antsoain A, Antsoain B, Berriozar
Kadeteak 280 kilo: Antsoain A, AntsoainB, AntsoainC, BasaburuaA, BasaburuaB, BerriozarA, BerriozarB

JOKATZEKO SISTEMA:

➔ ABSOLUTUA GIZONEZKOAK (320 eta 300 kilo):

Bi jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez. Bi jardunaldietako puntuak batu ondoren, lehen bi sailkatuek finala jokatu dute (bigarren jardunaldia bukatu ondoren).

Puntuen baturan berdinketarik badago, taldeen falta kopuruak hartuko dira konturan eta berdinketak jarraituz gero, taldeen pisua.

➔ ABSOLUTUA EMAKUMEZKOAK (255 eta 240 kilo):

Bi jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez. Bi jardunaldietako puntuak batu ondoren, lehen bi sailkatuek finala jokatu dute (bigarren jardunaldia bukatu ondoren).

Puntuen baturan berdinketarik badago, taldeen falta kopuruak hartuko dira konturan eta berdinketak jarraituz gero, taldeen pisua.

➔ ABSOLUTUA MISTOA (280 kilo):

Jardunaldi bakarra jokatu da multzo bakarrean (denak denen aurka). Tiraldi guztiak bukatzekin, lehen bi sailkatuen arteko Finala jokatu da.

➔ 20 URTE AZPIKOAK (280 kilo):

Bi jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez. Bi jardunaldietako puntuak batu ondoren, lehen bi sailkatuek finala jokatu dute (bigarren jardunaldia bukatu ondoren).

Txapelketa honetan 2007-2011 urteetan jaiotako gazteek hartu ahal izanen dute parte.

Taldea 4-5 tiralariz osatua egon daiteke eta gutxienez emakume batek parte hartu beharko du.

➔ KADETEAK (280 kilo):

Bi jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez. Bi jardunaldietako puntuak batu ondoren, lehen bi sailkatuek finala jokatu dute (bigarren jardunaldia bukatu ondoren).

Txapelketa honetan 2010 eta 2011 urteetan jaiotako gazteek hartu ahal izanen dute parte. Salbuespen gisa taldeek haur mailako kirolariak sartu ahal izanen dituzte, beti ere haur mailakoak talde osoaren erdia baino gutxiago badira.

Taldea 4-5 tiralariz osatua egon daiteke eta gutxienez emakume batek parte hartu beharko du.